


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak % 0,4 jaitsi dira 2009ko martxoan, aurreko hilearen aldean

Azken hamabi hilabeteetan (2008ko martxotik 2009ko martxora) eraikuntzaren kostuak % 1,0 igo dira.

EUSTATen datuen arabera, Euskal AEn eraikuntzaren kostuen indizeak % 0,4ko igoera izan du 2009ko martxoan, aurreko hilabetearen aldean; horrela, hilabete horretako urte arteko tasa % 1,0eraino igo da.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1997-2009



(*) Gehikuntza martxoko urte artekoa da
Iturria: EUSTAT

2009ko martxoan lanekuaren kostuak ez du inolako aldaketarik izan (% 0,0), baina lehengaien kostuak % 0,5 jaitsi dira.

Martxoan, eraikuntzaren eta obra zibilaren azpisektoreek antzeko bilakaera izan dute horien lehengaien kostuari dagokionez; aurreko hilabetearen aldean % 0,4 egin du behera eraikuntzak, eta obra zibilaren lehengaien kostuak % 0,7 egin du behera. Bi azpisektore horien urteko bilakaerari dagokionez, alde nabarmenak eman dira: eraikuntzako lehengaien kostuak % 2,1 gehitu dira, eta obra zibilekoek % 4,7 egin dute behera.

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handienak izan dituztenak ondokoak izan dira: ura (% 7,4), mineral ez-metalikoak (% 5,7), altzarien fabrikazioa (% 4,9) eta material elektronikoa (% 4,2). Beste alde batetik, urteko prezioetan beherakada izan dute (2008ko martxotik 2009ko martxora) hurrengo sektoreetako lehengaiak: petrolioaren birfinketa (-% 34,2), metalurgia (-% 11,1), zuraren industria (-% 0,7), material elektrikoa (-% 0,2) eta energia elektrikoa eta gasa (-% 0,9).

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE. DATU AURRERAPENA. MARTXOA 2009

GOIBURUAK	INDIZEA 2005= 100	GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	116,8	-0,4	1,0	0,2
ERAIKINAK	117,4	-0,3	2,1	0,3
OBRA ZIBILA	114,6	-0,5	-2,9	-0,1
LEHENGAIEN KOSTUA	116,2	-0,5	0,6	-0,3
ERAIKINAK	117,0	-0,4	2,1	-0,1
OBRA ZIBILA	112,9	-0,7	-4,7	-0,9
LAN-ESKUAREN KOSTUA	119,0	0,0	2,1	2,1

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helb. elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp